**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **03. Gizarte Ekintza**<br>**03. *Acción Social*** | **03.** Zentroak<br>**03.** *Centros* | **231.107** Pertsona Ezgaituak<br>**231.107** *Personas con Discapacidad* |

Egitaraua honakoetara bideratu da:

- Pertsona ezinduen bizimodua hobetzea; horretarako pertsona ezinduei arreta emateko dauden baliabideak, zerbitzuak eta programak antolatzen eta kudeatzen dira.
- Pertsona ezinduen autonomia sustatzea.
- Pertsona ezinduak gizarteratzea.

Helburuok lortzeko, pertsona ezinduei arreta emateko zerbitzuak eratzen eta koordinatzen dira, eta ezinduei arreta ematen dieten irabazteko asmorik gabeko erakundeen lana bultzatzen da.

Programak bi helburu orokor dauzka, eta bakoitza lortzeko berariazko ekintzak antolatzen dira.

Lehenengo helburua pertsona ezinduen bizimodu autonomoa bultzatzea da.

Horretarako, ezintasunen bat duten pertsonei gizarteratzea xede duen ekintza bat antolatu da; horren arabera pertsona ezinduentzako egoitza laguntzadunak eta eguneko arreta ematen duten zentroak antolatzen dira. Eguneko arreta-zentroetan arreta integrala ematen da egunean zehar; horretarako arlo askotako profesionalek euren jarduketak koordinatzen dituzte onuradunen garapen pertsonala eta soziala, autonomia eta gizarteratzea xedetzat hartuta.

Gainera, lan zerbitzuak egoten dira; zereginetako zentroen bidez garapen pertsonalerako zerbitzuak ematen zaizkie familiako edo gizarteko arrazoiak edo bestelakoak direla medio gizarteratu beharra duten ezinduei.

El presente Programa se orienta a:

- Mejorar las condiciones de vida de las personas con discapacidad mediante el desarrollo y gestión de recursos, servicios y programas dirigidos a este fin que posibiliten su atención.
- La promoción de su autonomía personal.
- La integración en la sociedad de las personas con discapacidad.

Para la consecución de estos fines se configuran y coordinan los servicios de atención a las personas con discapacidad y se promueve la actividad de entidades sin ánimo de lucro dedicadas a la atención de personas con discapacidad.

El programa se estructura en dos objetivos generales que agrupan acciones que se desarrollarán para su consecución.

El primer objetivo persigue promover la vida autónoma en la comunidad.

Para conseguir este objetivo se ha articulado una acción, orientada a posibilitar la inclusión social y comunitaria de las personas con discapacidad, poniendo a disposición de estas personas viviendas con apoyos y facilitando su acceso a centros de atención diurna. En estos centros se proporciona una atención integral durante el día, mediante un conjunto organizado y coordinado de actuaciones, desarrolladas por un equipo profesional multidisciplinar, dirigidas a facilitar el desarrollo personal y social, autonomía e integración social de las personas destinatarias.

También se ofrecen servicios ocupacionales, dirigidos a personas con discapacidad que, por razones familiares, sociales u otras, precisen de un servicio dirigido al desarrollo personal en orden a lograr un mayor ajuste e integración social.

Bereziki, 2022. urtean 329 plaza zuzkitu dira etxebizitza laguntzadunetan, (horietatik 8 aldi baterako egonaldian), 378 plaza zereginetako zentroetan, eta 1.126 plaza eguneko zentroetan. Nabarmentzekoa da, alde batetik, zereginetarako zentro berri bat sartu dela, 75 plazarekin, eta, bestetik, 2022an jarraitu egin dela 2021ean hasitako eraldaketarekin, zereginetarako zentroetako ohiko plaza batzuk zahartze aktiboko plaza bihurtzeko (egokiplan).

En particular, en el año 2022 se han facilitado 329 plazas en viviendas con apoyos (8 de ellas en estancia temporal), 378 en centros ocupacionales, y 1.126 en centros de día. Ekitaldian zehar 1.945 pertsona izan dira zerbitzu horien onuradunak (haietatik 734 emakume). A destacar, por una parte, la incorporación de un nuevo centro ocupaciónal con 75 plazas, y por otra parte, la continuidad en el 2022 de la transformación iniciada en el 2021 de algunas plazas ordinarias de centros ocupacionales en plazas de envejecimiento activo (egokiplan).

Bestalde, adierazi behar da 32 plaza daude 3 zentrotan banatuta, senideei atsedenaldia emateko programarako. 290 pertsonak erabili dituzte plaza horiek; horien artean 86 emakumeak izan dira.

Por otra parte, señalar que se dispone de 32 plazas, distribuidas en 3 centros para el programa de respiro familiar. 290 personas han sido beneficiarias de esas plazas, 86 de las cuales son mujeres.

Gainera, autonomia pertsonala sustatzeko lau zentro daude, eta, horri esker, 377 pertsonak jaso ahal izan dituzte zentroetan ematen diren zerbitzuen onurak. Pertsona horietako 208 emakumeak izan dira. Azpimarratu beharra dago 2022ko bigarren seihilekoan autonomia pertsonala sustatzeko zentro berri bat zabaldu dela.

Además, se dispone de cuatro centros de promoción de la autonomía personal que ha permitido que 377 personas sean beneficiarias de los servicios prestados por dichos centros. 208 de estas personas son mujeres. A reseñar la apertura, en el segundo semestre de 2022, de un nuevo centro de promoción de la autonomía personal.

Bigarren helburua da Aldundiaren erantzukizuneko egoitza zerbitzuak eskaintzea, etxebizitza ohiko edo iraunkor moduan eta, hala behar denean, aldi baterako etxebizitza moduan erabil ditzaten, desgaitasuna eta mendekotasuna dituzten pertsonei, beren edo familiaren etxean beharrizanak behar bezala asetzeko biderik ez badute.

El segundo objetivo se centra en ofrecer servicios residenciales de responsabilidad foral destinados a servir de vivienda habitual o permanente y, en su caso, temporal, a personas con discapacidad y en situación de dependencia, que no pueden satisfacer adecuadamente sus necesidades en su domicilio personal o familiar.

Helburu horiek lortzeko behar diren baliabideak eskura edukitzeko hitzarmenak sinatzen dira arreta-zerbitzu espezializatuak emateko.

Para la consecución de estos objetivos se articula un sistema de recursos basado, fundamentalmente, en la celebración de convenios para la prestación de servicios especializados de atención.

Helburu hori egoitzazko 992 plazatan zehazten da; horien onuradun izan dira 973 pertsona, egonaldi iraunkorrean, 2022. urtean (haietatik 426 emakume).

Este objetivo se concreta en 992 plazas residenciales de las cuales se han beneficiado, en estancia permanente, 973 personas en el año 2022. De ellas, 426 son mujeres.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **03. Gizarte Ekintza**<br>**03. *Acción Social*** | **03.** Zentroak<br>**03.** *Centros* | **231.107** Pertsona Ezgaituak<br>**231.107** *Personas con Discapacidad* |

Egoitzazko plaza horietatik 33 behin-behinekoak dira, eta zaintzaile nagusiek atsedenaldiak egiteko eta larrialdi-egoerei erantzuteko (zaintzaile nagusia gaixotzen denean, adibidez) erabiliko dira. 222 pertsonak erabili dituzte plaza horiek, horien artean 102 emakumeak izan dira.

Bestalde, esan beharra dago aldi baterako beste 15 plaza gehiago daudela, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFE) organismo autonomoaren menpe.

De estas plazas residenciales, 33 tienen carácter temporal, destinadas a estancias para respiro de personas cuidadoras principales y a la atención de situaciones de urgencia tales como enfermedad de la persona cuidadora principal, etc. 222 personas han sido beneficiarias de este tipo de plazas, 102 de las cuales son mujeres.

Por otra parte indicar la existencia de otras 15 plazas temporales más, dependientes del organismo autónomo Instituto Foral de Asistencia Social (IFAS).